

**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE
MINISTERIOAREN "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUAK"
2024ko DEIALDIARI LOTUTAKO EHUn DOKTOREAK
PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO
DEIALDIA, IZAPIDETZE AURRERATUKOA (FPI 2025)**

Onuradunen behin betiko ebazpena

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren 2024ko "Ezagutza sortzeko proiektuak" izeneko deialdian, UPV/EHUn, emandako laguntzei lotutako ikertzaileak prestatzeko deialdia, aldeztu aurretik izapidetzekoa, argitaratzen duen Ikerketako errektoreordearen 2025eko urriaren 10eko Ebazpenarekin bat etorritik, eta 2025eko abenduaren 15ean argitaratutako behin-behineko ebazpenaren aurkako alegazioak aurkezteko epea amaituta, eta zenbait bertan bera uzte jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak honako hau agintzen du:

UPV/EHUn web-orrian **argitaratzea I. ERANSKINEAN zerrendatutako onuradunei** doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko **laguntzak emateko behin betiko ebazpena** eta **II. ERANSKINEAN hautagairik gabeko proiektuen zerrenda**.

EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUETARAKO ETA PROIEKTU HORIEI LOTUTAKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUKETETARAKO 2024ko deialdiari dagozkion laguntzak ematen dituen AGINDUAN xedatutakoaren ondorioetarako (deialdi hori 2025eko abenduaren 9an argitaratu zen Estatuko Ikerketa Agentziaren-EIA webgunean), kontratuak formalizatu eta sailetan, institutueta edo zentroetan sartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, gehienez ere, EIAk argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, betiere hilaren 1ean hasita.

Europar Batasuneko nazionalitatea duten pertsonentzat, kontratuak 2026ko martxoaren 1ean hasiko dira. Ikertzaile nagusiak eta onuradunak beste data bat adosten badute, aldaketa eska dezakete pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbideari idatziz, betiere aurreko paragrafoan adierazitako epea betez. **EBko herritar ez direnentzat, kontratua 2026ko maiatzaren 1ean edo ekainaren 1ean hasiko da.**

Laguntzak emateko hasierako baldintzak eta horiek gauzatzeko epeak aldatzeko, laguntza eman duen organoak baimena eman beharko du, egoki iritzitako txostenak eskatzeko eta emakidaren baldintzak aldatzeko, beste ebazpen baten bidez.

Argitalpen horrek, UPV/EHUn webgunean, 39/2015 Legearen 45. artikulua araberak egindako jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Administrazio-bidea amaitzen duen behin betiko ebazpen honen aurka, deialdiaren 8.4 artikuluan jasotako aurkaratze-bideak jarri ahal izango dira.

Leioan, 2026ko urtarrilaren 9a.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA

Ikerketa Errektoreordetza